

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/11/2 | 372

🌀	Manex Izagirre eta May Gorostiaga
🌀	Galtzaundi Topaguneko II. Kongresurako lanean
🌀	Aurten noraino? 5.000ko muga gaindituz
🌀	Bidean: Josu Iztueta
🌀	Jatorkin

Zeinu-hizkuntza eta antzerkia bat



🌀 Patxi Amantegirekin solasean

NUTRIZIO AHOLKULARITZA OSASUN ZENTROA

KONDEKO ALDAPA,
5 B - 2º ESKUBIA
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO
HITZORDUA
679 934 888

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA
NUTRIZIO BERREZIKETA
ARIKETA FISIKOA
HELDUAK ETA HAURRAK

AMAIA ETXETXIPIA
"BIOLOGIAN" lizentzialua eta "GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKAN" Diplomatua

NOLEGIATU ZIK. 5/7

R.F.S. 89/12

SUPER EKO
SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera
eramateko zerbitzua

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa




ALTZO

Altzoko Udala

Etxebizitza tasatuak Altzon
Kokapena: Altzo Muñon

Altzon 12 etxebizitza tasatuen sustapena, 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela, terrazak eta garaje itxiek. 186.000 + BEZA

Zozketan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago aurrez etxebizitzarik ez dutenentzat 2012. urteko azaroaren 28 arte.

Informazio gehiago nahi lukeenak udal bulegoetan eska dezake; Tf. 943 652413



nonzer



galtzaundi
Euskara Taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarteak, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostarzu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala
Azala: Galtzaundi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 4.500 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketeta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegolan, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KUTXA GIZARTE EKINTZA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.








Erreportaia:
Zeinu-hizkuntza eta antzerkia bat

Gaio: Gaitzen, Tolosaldea-Goiherriko Gorren Elkarteak, III. Nazioarteko Zinemaldia Zeinu Hizkuntzan ospatuko du azaroaren 8tik 10era bitartean. Gaioaren baitan, bost aurpegi ezagun bildu dira, zeinu-hizkuntzaren ikasketan bizi duten euren esperientzia partekatzeko. Ainhoa Aierbe, Miren Gojenola, Aintzane Crujeiras, Sergio Nguema eta Irati Azkaratek zeinu-hizkuntza eta antzerkia uztartzeko proiektua dute buruan.

8-11. orrialdeak

Patxi Amantegi (Tolosa 1966) lurreamendi auzoko guraso gazteen arteko lagunartean, bizikidetzaren egunerokotasunean, besteak beste, gaur egun mahai gainean den zabor biltzetaren gaiaz hausnarketa egin eta hiritar guztientzat aukera onenaren bila lanean ari da. Bosgarren Edukiontzia Aldeko Mugimenduaren Gipuzkoako bozeramalea da.

Elkarriketa: Patxi Amantegi
14-16. orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Manex Izagirre eta May Gorostiaga	4-5
	Normalizazioa: Galtzaundi Topaguneko II. Kongresurako lanean	6-7
	Eskualdeko albistea: Aurten noraino? 5.000ko muga gaindituz	12
	Bidean: (H)irumugarrietara abiatu eta Laumugarrieta topatu	17
	Kultura: Jatorkin, eskola eta familia magrebtarrak elkar gerturatzuz	18-19

Progresuaren i~~z~~enean



Manex Izagirre
Gaztea

4 Bada *Le Belle Vert* (Coline Serreau, 1996) izeneko film bat. Planeta utopiko batetik Lurrera etortzen den emakume baten istorioa kontatzen du, Lurreko biztanleak planetaren egoera larriaz ohartarazi eta bide egokian jartzeko asmotan. Hona Euskal Herritik itzultzean bere herritarrekin izandako elkarrizketa:

– Zer moduz bizi dira euskaldunak?

– Gure aldean oso atzeraturik bizi dira!

CO₂ pila isurtzen duten industria piloa dute. Isurketa hauek erregulatzeko badute Kyoto izeneko itun bat baina ez du inork errespetatzen. Pello Zubiria delako batek Argian idatzi duenez enpresa handiek karbonoa isurtzeko eskubiak salerosiz. Espainiako gobernuak ere dirutzak gastatu omen ditu poloniarren kutsatzeko eskubideak eskuratzeko.

Gainera oraindik CO₂ isurtzen duten ibilgailuak erabiltzen dituzte. Are gehiago! Asfaltoz betetzen ari dira lurralde osoa beste garraio bide batzuen aurretik lehentasuna errepideei emanez.

– Oso aire kutsatua izango dute orduan! Eta ez al dute trenak ezagutzen?

– Baita ondo ezagutu ere! Abiadura Handiko Tren bat ari dira eraikitzen. Trena eraikitze-ko ordea mendiak zulatzen dituzte, landa eremuak suntsitu, baserriak eraitsi... Eta guztia herritarren sekulako dirutzak gastatuaz, ondoren errentagarria izango ez den eta askok erabili ezingo duten garraio bide bat egiteko.

– Ikaragarria!

– Bai, hala da. Gainera politikoekitsu-itsuan defenditzen dute proiektua, "progresuaren izenean" beharrezkoa dela esanez. Eta makroproiektuen aurkako joera azaldu dutenak zigortu egin dituzte. Hala ere orain murgilduta dauden krisi ekonomikoak erakutsi du ez dela hain premiazkoa tren hau.

– Krisi batean bizi dira orduan. Jabetuko ote dira orain arteko akatsez?

– Bai neurri batean. Herritarrek konturatu dira ezin direla milioiak gastatu zenbait enpresa aberasteko soilik balio duten azpiegitura erraldoiak eraikiz. Hala ere politikariak tematuta dabilta. Esaterako Iruñean baratza mordoa suntsitu dituzte Baratzen Interpretazio Zentro bat eraikitze-ko.

– Eta zer da Baratzen Interpretazio Zentroa?

– Ezta ideiarik ere. Baina ziur ingelesezko izen ponpoxo bat jarri eta nazioartean bilatuko dutela oihartzuna. Agian hiriburu berde izateko hautagaien zerrendan sartu nahiko dute.

– Zer da hiriburu berdea? Basoz eta larre berdez osaturiko hiri bat?

– Ez, ez, moda-modan dago berdea orain. Dena da berde kolorekoa, edo green, edo ekologikoa, edo bio... Zerbait saldu nahi baduzu esan ekologikoa dela eta diru-laguntzak jasoko dituzu horregatik. Adibiderako, badira enpresa batzuk zaborrak erraustuz energia sortzeko modu merkea aurkitu dutenak. Ondoren energia garbia bailitzan saltzen dute.

– Izugarria da hori! Sor dezakeen kutsadura guztiarekin! Eta gainera baliabideak behin eta berriro erabili beharrean xahutu egiten dituzte! Ez al dago horren aurkako inor?

– Bai, badira sortzen duten hondakin pilaz jabetu diren taldeak eta arazo honi lehenbailehen irtenbide bat emateko asmoz beren hondakinen erantzule egiten direnak.

Eta bada munduari egiten ari zaizkion kalteaz ohartu den jendea, eta progresuaz hitz-egitean ez duena ekologian pentsatzen baizik eta ingurugiroaren ongizatean, eta utopietan sinisten duena, eta...

Jerejef / Eskerrikasko

Txikitan opari bat jasotzen zuenean poliki-poliki kentzen zion opariko papera, eta behin erabat kenduta ikusterakoan saltoka hasten zen emozioz beterik eskerrak ematen opari emaileari. Gero poliki-poliki opariko papera tolestean hasi zen eta beste kolorezko paper pilo batekin egurrezko kutxa handi batean gordetzen zuen. Oparia gutxienekoa zen gure mutikoarentzat, garrantzitsuena emandako maitasuna eta intentzioa zen eta hori bizitza osoan jasotako oparietako paper bakoitzean zegoen. Esan dezakegu bere kutxa handia opariaren istorioaren liburutegia zela.

Askotan gure mutilak bere kutxa handitik paper koloretzu zati bat hartzen zuen norbaiti opari bat egiteko: familiako bati, lagun bati, ezagun bati edo askotan egiten zuen bezala ezezagun bati ere.

Seguru barrukoa oso berezia zela baina opariaren azala beti zegoen modu egokian ipinita: bere gorputzeko poro guztien maitasun osoarekin, bihotzarekin bideratuta eta gainera eskuz eginda.

Jaso duzue noizbait ume batek prestatutako opari bat? Bale, igual bere forma ez da geometrikoa edo zelo piloa dauka... Baina ez al dira opari politenak? Eta barrukoa gutxienekoa izaten da guretzat.

Nire irudimenak asmatutako herrixkan gazte bat bizi da. Gazte berezi bat. Bere bi-

zitan jasotzen duen guztia opari bezala onartzen du eta berak ematen dituen gauza guztiak, handiak nahiz txikiak, opari bat izango balitz bezala eskaintzen ditu. Txikitan opariak biltzen zituen modu berean eskaintzen ditu orain berak. Berak bada-ki opari handiena ez dela garestiena, edo ikusgarriena...

Opari handiena oparia biltzen duen papera bera da. Nola eskaini dezakegu gure intentzioa? Nola bildu ditza-kegu gure emozioak? Nola jaso besteen sentimenduak?

Askotan joaten naiz nire irudimenak asmatutako herrixkan zehar paseatzera. Bizitzak kolpe bat ematen didanean batez ere...

Orain dela egun batzuk Falilou Diagnè, Griot Senegal-darra joan zaigu.

Musikariak, dantzariak, ipuinkontalariak... Griot-ek bere herriaren istorio eta kulturaren jakinduria daramate beraiekin. Norbaitek esan zuen behin Griot bat hiltzen denean liburutegi bat erretzea bezala dela. Hain aberatsa da beraien jakinduria! Agian opariaren paperak gordetzeko egurrezko kutxa bat sutan dago orain ere ...

Ginars Afrikar Dantzataldea eta batez ere Amaia Pagolari esker Bea, nire bikoteak eta biok ezagutu genuen Falilou. Nire irudimenak asmatutako herrixkan bizi den gaztearen antza handia dauka Falilou-k.

Beak eta biok esan dezakegu Falilou Diagnè ezagutu



May Gorostiaga
Teatreroa (Intujai Teatro, Amaroizko Antzerki Artisauak...)

5 Nire irudimenak asmatutako herrixka batean mutiko bat bizi da. Beno, mutil bat baino gehiago dago nire herrixkan baina nire irudimenak asmatutako mutiko hau oso berezia da.

genuela, eta hori sekulako oparia da.

Esan dezakegu Ginars taldeko partaideen bihotzak dantzan hasten direnean gure gorputzak mugitzen hasten direla beraiekin batera, eta hori izugarriko oparia da. Eta, batez ere, esan dezakegu Amaia Pagola gure lagun hoberenatariko bat dela eta oraindik ez dela opari hori definitzeko hitzik asmatu...

Jerejef Falilou! Eskerrikasko Amaia!

Nire hurrengo bidaian oparietako paper pilo bat eramango dut nire herrixkara. ☺

Galtzaundi Topaguneko II. Kongresurako lanean

Galtzaundi Euskara Taldea Topaguneko bazkide den aldetik, iaz Euskara Elkarten Federazioak abiatutako hausnarketari jarraipena eman dio aurten ere. "Eraldabideak. Federaziotik Mugimendura" izenburuko lanaz hausnartzeko aukera izan duten Galtzaundik gonbidatutako euskaltzaleek.

Erredakzioa



Topaguneko I. Kongresua 2011ko otsailean ospatu eta "Oinarrirak" deritzon dokumentua osatu zen. Aurten, ordea 2012ko azaroan "Eraldabideak" adostuko dira. Horretarako, Topaguneko dei egin die federazioa osatzen duten euskara talde ezberdinei eraldaketarako urrats horiek definitzeko.

Tolosako zita, Oargi elkartean ospatu da, Kike Amonarri soziolinguistak eta Topaguneko aholkulariak gidatuta. Galtzaundik Tolosaldeko hogeitabat norbanakoei dei egin die, euskara elkarte eta Topagunea beraren paperaz hausnar dezaten.

"Eraldabideak" adosteko tresna izan da Oargiko bilera, mugimenduaren zutabe izan beharrekoak definitzeko zita, alegia. Eraldabide hauek bost ardatz ezberdinetan definitu ditu Topagunekoak: "Izena eta izana", "Jardunbidea", "Finantziazioa", "Barne komunikazioa eta elikadura" eta "Antolaketa eta barne lidergoa".

Ardatz ardatz

Jarraian jasotzen dira, ardatzez ardatz zitan bilduriko euskaltzaleen iritziz eraldabide horiekiko Tolosako elkarteak izan beharreko adostasun eta desadostasun maila. "Izena eta izana" ardatzak erakutsi zuen bezala, Galtzaundiren bueltan bildurikoek ondorengo baieztapenak argi izan dituzte Topaguneari buruz: "euskalduna da euskara tresna nagusizat duena giza adierazpena bideratzeko", "gure lanaren eragina handitzeko gaitasuna egin beharko genuke egungo koordinazioa eta batasun nahikorik eza", "mugimenduaren nahia zabaldua eta irekia izatea bada ere, ez dugu beti irudi hori ematen lortzen, gure egitura nahiko malguia ez

delako" eta "euskaraz bizi ahal izateko lana etxetik (elkartetik) atera eta plazan kokatu behar dugu".

Topagunekoak izan beharreko "Jardunbideak" ordea ondorengo hausnarketekin bat egiteko beta eman du: "garrantzitsua da elkarten eta federazioaren finantziario egonkortzea gure jardunbidea gehiago hurbildu dadin mugimenduaren egiteko", "ekimen bat mugimenduentzat mesedegarri izan dadin ez da ezinbestekoa guk antolatua izatea, besteen ekimenetan parte hartzea hobe izan daiteke batzuetan", "ahalgina egin behar dugu plaza irekian eta besteekin batera jarduteak dituen zailtasunak gainditzeko, onurak handiagoak direlako" eta "jardunbidea edozein dela ere, beti planifikatu eta txertatu behar dugu bere hartzaileren motibazioaren eragiteko helburua".

Finantziario ardatzak ez du

erabateko adostasun punturik ekarri.

Baina bai ordea, desadostasuna adierazteko bidea. Galtzaundiren bueltan bildurikoak ez dira bat etorri Topagunekoak zehaztutako ondorengo adierazpenarekin: "herri batean zerbitzua eskaintzerako orduan tokiko elkarteak izango du lehentasuna eta, berak baliatzen ez badu, mugimenduak hartuko du eskumena".

"Barne komunikazioa eta elikadura" deritzon atalak ordea, adostasun gehiago mahai-gaineratzeko bidea ekarri du: "barne komunikaziorako tresnak osatu behar dira kanpo komunikazioko estrategiarekin", "belaunaldi berriak ahalmentzeko beharra lehen planoan jarri behar da" eta "urteroko plangintzan sartu behar dira harrera planak eta formazio ikastaroak mugimenduaren ezagutza soziolinguistikoa areagotzeko".

Azkenik, "Antolaketa eta bar-

Irakurle Taldea.
Azaroko tertulia

Eguna: azaroko 8, osteguna
Ordua: 19.30
Lekua: Tolosako Kultur Etxea

Irakurri beharreko liburua.
"Etxekalte"

Harkaitz Zubiri

Galtzaundi 372
12ko azaroak 2

Arretxe
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.
Lorategi lanabesak.
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -
Tel: 943 673 118 Tolosa

IGO

Karga eta goi lanetarako grua

www.igogrua.com
Mobil zkia. 670 67 24 62

euskararen semaforoa
euskararen semaforoa
blogspot.com

Errotulazioa & inudia
Vicente
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94
taller@rotulosvicente.com
Lasibar bialara 25, 1-04 atea
20271 Iruia (Gipuzkoa)

Xabier Amuriza Xalbadorren paperean aritu zen

Lizardi elkartearen eta Galtzaundi Euskara Taldearen elkarlanean Xabier Amurizak "Xalbador, bat-bateko mirakulua" ikuskizuna eskaini zuen Tolosako elkartearen. Bertaratuak afariaren ondoren Xabier Amurizak Xalbadorren lanaren inguruan bilduriko antologiak gozatzeko aukera izan zuten.



Diskoak opari!

Hiru disko-dvd opari eta hiru saridun. Opariak jasotzera Galtzaundiko egoitzatik pasa beharra dago. (Nafarroa etorbidea, 6. Tolosa).

"Soinujolea naiz". Joxe Mendizabal. M^a Eugenia Illunbe Sasiain suertatu da saridun.

"Zazpikoloroa". Pirritx, Porrotx eta Marimotos. Juan Carlos Etxebeste suertatu da saridun.

"Glaukoma Vol. 1". Glaukoma. Alvaro Atorrasagasti suertatu da saridun.

Zeinu-hizkuntza eta antzerkia bat

Gaioak, Tolosaldea-Goiherriko Gorren Elkarteak, III. Nazioarteko Zinemaldia Zeinu Hizkuntzan ospatuko du azaroaren 8tik 10era bitartean. Gaioak bost aurpegi ezagun bildu dira, zeinu-hizkuntzaren ikasketan bizi duten euren esperientzia partekatzeko. Ainhoa Aierbe, Miren Gojenola, Aintzane Crujeiras, Sergio Nguema eta Irati Azkaratek zeinu-hizkuntza eta antzerkia uztartzeko proiektua dute buruan.

Naiara Roldán de Aránguiz

Gaioak elkarrekin deituta, bere bulegoan bildu gara gorren egoeraz, zeinu-hizkuntza ikastearen abantailaz eta Tolosan ospatzera doan Zeinu Hizkuntzan egindako III. Nazioarteko Zinemaldiaz mintzatzeko. Mahaiaren bueltan hizlari anitz. Alde batetik, Gaioak elkarrekin ordezkariak: Alberto Etxebarria, Gaioak lehendakaria; Julian Rodriguez, elkarrekin mugimendu arduraduna eta Gurutze, teknikari laguntzailea. Bestetik, zeinu-hizkuntza ikasten diharduen boskotea;

hiru aktore –Ainhoa Aierbe, Miren Gojenola eta Aintzane Crujeiras-; dantzari-koreografo bat, –Sergio Nguema- eta irakasle ikasketak burutzen dituen gaztea, Irati Azkarate. Honetaz gainera, eztabaida eta mahai-ingurua posible izateko ezinbesteko pieza ere mahaiaren bueltan eseri da, interpretatzailea, Iker Amondarain.

Julian Rodriguezek aipatu boskoteari zeinu-hizkuntza irakasten die, astean bitan, bi orduz elkarrekin dira Donostian, astelehen eta asteazkenetan.

Julian, hamar urtez zeinu-hizkuntza irakasten aritu bada ere, oraingoan metodo berria abian jarri nahi izan du: "hasi aurretik bileratxo bat egin genuen eta ikasleak material ona zirela egiaztatu nuen. Lan berezia egiten hasi naiz eurekin".

Julianek argi dauka boskote honek osatutako taldea berezia dela; bai motibazio aldetik eta baita taldea beraren helburu aldetik ere. Motibazioari dagokionez, ondorengo azpimarratu nahi izan du Julianek: "beste toki asko-

tan ikasleak titulu bila edo hezkuntzarako puntu bila etortzen dira". Ainhoa, Miren, Aintzane, Sergio eta Iratiren egoera oso bestelakoa dela zehaztu du Julianek: "klaseetara oso motibatuta etortzen dira, gogoekin eta horrek bizia ematen dit". Izan ere, Julianek Gizarte Integrazio ikasketen baitan eskaintzen ditu zeinu-hizkuntzen ikastaroak, baina hauen izaera oso bestelakoa izaten dela zehaztu nahi izan du Gaioak elkarrekin ordezkariak: "taldea oso handia izaten da, 15 ikasle biltzen dira ikasgelako, azterketa bat gaioak behar izaten dute gainera... bost lagunekin askatasun handiagoarekin lan egin daiteke".

Taldearen izaera aztertuta, helburua ere oso bestelakoa da. Hastapenetan badaude ere, "oinarria hartzen, hiztegia lantzen, agurrak, familiari lotutako kontuak, aditzak..."; oinarriko komunikazioa lantzeaz gainera, beste proiektua dute buruan: zeinu-hizkuntza eta antzerkia uztartzeko dituen proiektua, alegia.

Honako taldea martxan jarrearen arduradunak Julian Rodriguez bera eta Aintzane Crujeiras donostiarrak dira. Duela 8 urte biek topo egin zuten Tolosako Inmakulada Ikastetxean In-

tegrazio Soziala ikasketak burutuz. Ia hamarkada bat pasata berriro topo egin eta honako taldea martxan jarrean pentsatu dute. Aintzane gainerako laukoteari luzatu dio zeinu-hizkuntza ikasteko gonbitea.

Ainhoa Aierbe, "abentura honetan, saltsera" delako murgildu da. Zeinu-hizkuntzarekin harremana aurretik ere bazuen. Duela urte batzuk, 20 orduko ikastaro bat egin zuela gogora ekartzen du. "Kuriostateak" bultzatuta hasi da zeinu-hizkuntza ikasten. Harra ordea Aintzane piztu zion, "antzerki talde bat, gorra eta entzuleak elkarrekin sortzea oso interesgarria iruditu zitzaidan".

Azken finean, hori baita talde honen helburua; antzerki talde bat sortu eta elkarrekin antzerki proiektu bat garatzea. Julianek hala ere, hastapenetan baino ez daudela zehaztu nahi izan du: "antzerki proiektua hor dago baina oinarri-oinarrian ari gara; epeirik gabe eta lasai".

Miren Gojenola ordea, "urte batzuk hizkuntza honetan saltseatzen" ibili dela kontatu du, eta hori dela eta Aintzane taldeko partaide izateko proposamena luzatutakoan, "noski baietza esan nion gustuz", dio.

Gabeziez kontziente

Guztien ustetan, zeinu-hizkuntza euren lanbideetan erabilgarria izango dela zaila ez dute, baina hala ere, bizitzako beste edozein arlo eman nahi izan diote garrantzia. Aintzane horrela laburbiltzen du egoera: "azkenean komunikazio bide bat da, beste hizkuntza bat da. Aktoreok antza erraztasun handiagoa daukagu hizkuntzaren interpretaziorako, keinu aldetik asko behar delako. Azken finean, komunikatzeko balio du zeinu-hizkuntzak".

Are gehiago, beste edozein hizkuntzaren izaera izanik Aintzane ezin du ulertu ikastetxeetan ingelesa edo frantsesa ikasten den bezala, zeinu-hizkuntza zergatik ez den irakasten, "bizilaguna gorra izan daiteke", dio berak. Egunerokotasunean gaioak gorrekiko duen jarreraz inoiz baino kontzienteagoak dira mahaiaren bueltan eseri direnak.

Ainhoa Aierbe egoerarekin kritikoa azaldu da: "ez daukagu harreman askorik gorrek eta entzuleok. Harreman horiek erraztu behar dira eta zeinu-hizkuntza jakiteak egoera erraztuko luke. Gorrek entzuleon hizkuntza badakite, buruan badaukate, baina ezin dute espresatu guk espresa-

ZALBIDE
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.
Ostirala, larunbata eta igande
eguerditan irekita, iluntzetan
egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa
Tel: 943 652 176

SANTAMARIA
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610
TOLOSA

gizarte
kutxa

J. San Sebastian
MARISKO ETA ARRAINAK

Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141



tzen dugun bezala. Guk egin behar dugu ahalegina edo ez dago modurik. Gorra gizaratearen parte dira eta egin behar zutena egin dute, orain guri dagokigu, bestela ez dira gizaratearen parte izango”.

Ainhoa, Miren, Aintzane, Sergio eta Irati egoeraz kontziente zeinu-hizkuntza ikasteari ekin diote. Metodologia jolasean oinarriturik dago. “Jolasten gehien ikasten da”, dio Aintzane. Hitz solteak ikasi eta ondoren ipuinak kontatzen aritzen dira. Hone-la, “kreatibitatea” ere lantzen dutela dio Ainhoa. Azken finean, aktore lanbidearekin parekatuz inprobisazioak paper garrantzitsuak betetzen du: “hitz batzuekin ipuina osatu behar dugu; buruari eragitea da” eta baita “praktika ere”. Aintzane argi dau-

ka zeinu-hizkuntza beste edozein hizkuntza bezala ez dago modurik. Gorra gizaratearen parte dira eta egin behar zutena egin dute, orain guri dagokigu, bestela ez dira gizaratearen parte izango”.

Sergio Nguema dantzari eta koreografoa da eta gorrekin aurretik ere harremana izan duela gogoratzen du, hala ere, euren egoeraz orain jabetu dela ere azpimarratu nahi izan du: “gaztetan ikasituen ikastetxean ikasle gorrrak ere bazeuden eta horrek gizaratearen parte izango”.

Irati Azkarate bestetik, gus-tura azaldu da zeinu-hizkuntza ikasteari esperientziarekin. Bera magisteritza ikaslea da, heziketa berezia burutzea ere buruan du. Horregatik,

ikastaro honek lana erraztu egingo diola zalantzarik ez du. Metodologiarekin ere kontent dago ikaslea; “teoriatik alde egiten du. Zeinuak ikasi eta gero gure artean elkarrizketak izaten ditugu, denbora guztian errepikatuz aritzen gara. Hitz egitea, praktikatzeari izaten da garrantzitsua”.

Ikastaroa, esan bezala, gorrek jasaten dituzten murrizketek ohartzeko bidea ere bada. Mirenek gizaratearen egoera zuzenki laburtu du: “gorrekin egon arte ez zara konturatzen dituzten gabeziez; badakit gorra daudela, baina eurekin egon arte ez naiz egoeraz benetan jabetu”. Julianek Mirenek esandakoari heldu eta adibide argi batekin egoera zehatz bat azaldu du; elkarrizketa burutzen ari den gela, eraikin publiko batean dagoela kontutan harturik, gorrentzako egokitzapenik ez duela salatzen du: “bilduta gauden pertsona guztiak gorrrak izango bagina eta sute bat hasiko balitz ez ginatete konturatuko. Alarma entzuleentzat baino ez baitago prestaturik. Argi bat egongo balitz denok aterako ginake korrika”.

Egunero-egunero ematen diren tankerako egoerak ekiditeko gizarate osoaren kontzientziak beharrezkoa da. Ainhoa, Mirenek, Aintzane, Sergiok eta Iratik lehen pausoa eman eta zeinu-hizkuntza ikasten hasi diren bezala, gizarate osoari gonbitea luzatuz amaitu nahi izan dute elkarrizketa. “Nahiz eta zaila izan, oso dibertigarria da eta jendea ikastera animatuko nuke”, amaitu du Aintzane Crujeirasek.

III. Nazioarteko Zinemaldia Zeinu Hizkuntzan

Jaialdia Tolosan azaroaren 8tik 10era bitartean ospatuko da. Gainditzen elkarteak gizarate osoari zuzendutako egitaraua prestatu du; gor zein entzuleentzat. Izan ere, Gainditzeneko ordezkaria azpimarratu bezala, filmak proiektatzeko orduan hiru irizpide izan dituzte kontuan gizarate osoarentzat irisgarri izateko: “zeinu-hizkuntza daukagu, azpigituluak ditugu eta pelikula zuzenean bikoiztuak dira. Honek esan nahi du denentzat egindako filmak direla”.

Azaroaren 8an, ostegunean, Tolosako Zineklubaren laguntzarekin batera lehengoz zinemaldiaren baitan, Tolosako Leidorren filma bat eskainiko da, 19.15 eta 21.45etan. Aukeratutako pelikula, Chema Rodriguezen “El abrazo de los peces” da. Istorioak hiru pertsona izango ditu protagonista, hirurak gor-itsuak izan eta ura maite izateaz gain, singularitasuna da berezi egiten dituen ezaguerria.

Zinemaldiaren bigarren berritasuna ostiralean etorriko da, Tolosako ikasleei zuzenduriko ekintza batekin. Goizeko 09.30ean Tolosako Kultur Etxean zeinuen hizkuntza pelikula bat eskaintzeaz gain, ikasleekin sentsibilizazio lan bat egingo dela aurreratzen du Julian Rodriguezek.

Larunbatean ordea, azaroaren 10ean, aurreko urteko egitarauari helduko zaio: 09.30ean Tolosatik barrena turismo bisitaldiari ekingo zaio eta 10.30-13.30 eta 16.30-19.30 bitartean Leidor



aretoan film laburren proiektzioa izango da. Guztira, 17 lan ikusiko dira Tolosako aretoan eta sarrera 8 euroren truke eskuratzeko aukera egongo da, baita alde aurretik www.gainditzen.com webgunean ere. Euskal Herriko, Espainiako, Frantziako, Italiako, Ingalaterrako, Ukrainiako... lanak baloratu beharko ditu epaimahaiak saio amaieran sarien banaketari ekin ahal izateko.

Tolosan publikoak disfrutatzen ahal izango dituen titulu artean ondorengoak: “Bebes robados”, “Quiero se oyente”, “Asalto”, “Insegnare

lan felicitá”, “The allotment”, “¿Qué puede necesitar?”, “96 horas”, “Una verdad injusta”, “The protector”...

Ainhoa, Mirenek, Aintzane, Sergiok eta Iratik euren babeserakutsi nahi izan diote Tolosan ospatzera doan zinemaldiari. Aintzane konturatu sentsibilizazio astean parte hartu zutela gogoratu du eta tankerako ekimenak goraitatu nahi izan ditu: “garrantzitsua da gizarateak jakitea gorrek ere zinema sortzen dutela”.

Ainhoa bestetik kritikoa azaldu da gizarateak zein komunikabideek tankerako ekimenei eskaintzen dioten oihartzunarekin: “jaialdiaren informazio ez neukan, ez nekien hau existitzen zenik ere”. Horregatik, ekimen antolatzea bezain garrantzitsua, ekimen hauek komunikatzea dela iritzia du Ainhoa Aierbek. Honela, Ainhoa III. Nazioarteko Zinemaldia Zeinu Hizkuntza gizarate osoari gor zein entzuleei zuzendurik dagoela helarazi nahi izan du. Miren Gojenolak Ainhoarekin bat egin eta “publikoa erakartzeko, curiositatea nola piztu asmatu behar da”, esan du.

Oraingoan Gainditzen elkarte aurpegi ezagunez baliatu eta gizarate osoari zinemaldian parte hartzeko gonbitea luzatu dio.

Xirimiri
Txokolategia
Xabier Izagirre

Gosariak eta meriendak

Tel.: 943 675 223
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

ELUSTONDO
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak
Iluminazioa
Antenak

lurre, 4 (Mustad)
943 672 300
Amaroz, 21.
943 675 513
20400 TOLOSA

Zumardi

SEGURAS
BILBAO



Aholkularitza
integrala

Laskurain, 8-behea
TOLOSA
Tel.: 943 651 877

Martin
Eceizabarrena

Instalazio
erreforma
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa
Tel.: 943 672 445
Mobila: 608 774 822

matilda

zure moda osagaken denda

Korreo Kalea, 3
Tolosa

Aurten noraino? 5.000ko muga gaindituz

2008an errenta aitortzen euskaraz egiteko kanpaina abiatu zenetik urterekin datuek goranzko joera erakutsi dute. Jaso berri diren 2.011ko datuek 5.227 pertsonen errenta aitortzenaren tramitea euskaraz burutu dutela erakutsi dute. Lehenengoz 5.000ko muga hori gainduta da.

Erredakzioa

Aurten noraino?



Eskualdeko 27 herriren datuak aztertuta –Gazteluko daturik ez da eskuratu-, udalerririk guztiek gora egin dutela argi geratu da. Kanpainak indarrean daramazkin 4 edizioetan 3.213 pertsonen errenta aitortzen euskaraz egiteko 5.227 egitera lortu da. Hau da. %12,26tik %21,75era pasa da Tolosaldean.

Aldaketa honen erantzule dira apirilaren, ogasunarekin tramitea egitearen bezperatan, errenta aitortzen euskaraz egiteko kanpaina abian jarri zutenak: Kontseilua, Galtzaundi Euskara Taldea, Udalerririk Euskararen Mankomunitetako (UEMA) 13 udal (Aduna, Anoeta, Alegia, Altzo, Amezketa, Baliarrain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta

Orexa) eta azkenik eskualdeko beste lau udal: Ibarra, Tolosako Udala, Villabonako Udala eta Zizurkilgo Udala.

Iazko “moskeo kanpainak” “Aurten noraino?” lema zabaldu zuen herritarren artean eta egun datuak eskuarte ditugula, 5.227 pertsonen kanpainari atxikimendua erakutsi ziotela jakin da. Kanpainaren berri emanez 11.000 eskuorri banatu ziren eta hortaz jasotzaileen % 47,51k errenta aitortzen euskaraz egiteko hautua egin zuela esan daiteke.

Datuak herriz herri aztertuz gero erradiografia antzekoa topa dezakegu, herri guztiek, portzentaje altuago edo murriztagoan baina hasierako urtetik hona, denek egin dute gora. Sentsibilizazioaren ildoan hazia landu dute urtetik urtera ekime-

nean parte hartutako eragile ezberdinek.

Datuen portzentajeak aztertuta, Orexa berriz ere lehen postuan ageri da, bertako herritar zergadunen erdiak baino gehiagok Gipuzkoako Foru Aldundiarekin tramitea euskaraz betetzen du (%54,84). Atzetik, %30a gainditurik ondorengo 14 herriak: Amezketa (%38,76), Altzo (% 37,98), Baliarrain (% 37,50), Lizartza (%35,57), Alkiza (% 35,42), Berastegi (% 35,17), Abaltzisketa (% 33,97), Berrobi (% 32,27), Bidegoian (% 31, 30), Leaburu (%30,95), Albiztur (% 30,64), Alegia (% 30,38), Orendain (% 30,34) eta Aduna (%30,20).

Atzetik, %20ko portzentajearen gainetik beste zazpi hauek: Ikaztegieta (% 28,74), Elduain (% 27,69), Asteasu (% 27,44), Belauntza (% 25,00), Anoeta (% 24,70), Larraul (% 22,88) eta Hernialde (% 21,47). Azken postuetan, portzentajerik baxuenak eskuarteatuz, baina goranzko joera nabarmenduz biztanle kopuru handiak dituzten herriak ageri dira: Ibarra (%18,41), Zizurkil (% 18,09), Irura (% 17,36), Tolosa (% 17,22) eta Villabona (% 15,24). Hona-koak portzentaje datu osoak kontutan hartuta eskuratutako zifrak.

Saillkapena (2010)	Herria	2008		2009		2010		2011	
		Euskaraz	%	Euskaraz	%	Euskaraz	%	Euskaraz	%
1	Orexa	18	%26,87	26	%38,81	30	%46,15	34	%54,84
2	Amezketa	132	%27,05	156	%30,47	182	%34,93	200	%38,76
3	Altzo	55	%26,96	66	%33,33	71	%34,63	79	%37,98
4	Baliarrain	11	%20,00	17	%30,36	20	%32,78	24	%37,50
5	Lizartza	99	%27,05	118	%32,33	126	%35,00	138	%35,57
6	Alkiza	30	%15,87	48	%24,87	57	%29,68	68	%35,42
7	Berastegi	112	%21,58	135	%25,38	162	%29,50	197	%35,17
8	Abaltzisketa	34	%21,25	43	%27,56	47	%30,12	53	%33,97
9	Berrobi	66	%22,53	74	%26,06	79	%27,05	91	%32,27
10	Bidegoian	57	%23,75	59	%23,69	66	%26,09	82	%31,30
11	Leaburu	46	%20,72	62	%28,70	65	%30,37	65	%30,95
12	Albiztur	30	%17,14	38	%21,35	58	%31,35	57	%30,64
13	Alegia	183	%19,57	225	%24,43	245	%27,56	271	%30,38
14	Orendain	22	%24,72	24	%27,59	26	%29,88	27	%30,34
15	Aduna	49	%21,21	57	%24,05	61	%25,20	74	%30,20
16	Ikaztegieta	39	%15,54	47	%19,58	58	%24,06	71	%28,74
17	Elduain	27	%21,25	33	%25,58	36	%29,26	36	%27,69
18	Asteasu	120	%16,30	154	%20,32	195	%25,72	213	%27,44
19	Belauntza	31	%18,56	36	%21,30	38	%23,03	41	%25,00
20	Anoeta	144	%14,95	185	%18,88	223	%22,89	243	%24,70
21	Larraul	11	%09,65	12	%10,71	17	%14,53	27	%22,88
22	Hernialde	33	%17,28	41	%22,04	42	%22,22	41	%21,47
23	Ibarra	328	%13,77	367	%15,67	398	%17,18	426	%18,41
24	Zizurkil	197	%13,12	225	%15,18	232	%15,88	271	%18,09
25	Irura	103	%11,53	121	%13,46	144	%15,80	158	%17,36
26	Tolosa	1.044	%10,36	1.255	%12,53	1.438	%14,23	1.763	%17,22
27	Villabona	324	%10,19	370	%11,70	430	%13,61	477	%15,24

Gaztelu

Ez dago daturik

Tolosaldea	2008		2009		2010		2011	
	Euskaraz	%	Euskaraz	%	Euskaraz	%	Euskaraz	%
	3.213	%12,26	3.838	%15,64	4.546	%18,34	5.227	%21,75

Baina azken lau urte haue- tako gorantz portzentajea az- tertuta, kanpaina martxan jarri zenetik ondorengo herriek izan dute euskara erabilpen al- daerarik handiena: Orexak 28 puntuko igoera izan du, Alki- zak 19koa, Baliarrainek 17koa eta Berastegik, Albizturrek,

Ikaztegieta eta Larraulek 13 ingurukoa. Kanpainak eragin gutxien egin die Hernialde, Ibarra eta Zizurkil herriek. Datuak positiboak badira ere eta 2010ean zehaztutako muga gainditu bada ere, go- rantzko joera horrek etengabe goraka jarraitu dadin lanean

segi beharko dute erakunde ezberdinek, ez bakarrik eus- kara errenta aitortzen beza- lako tramitean erabiltzeko baizik eta erakunde publikoe- kin betetzen diren tramite ezberdinetan eta baita gizar- tearen gainerako alor guztie- tan ere.



Patxi Amantegi

Bosgarren edukiontziaren aldeko aldarrian



Patxi Amantegi (Tolosa 1966) lurreamendi auzoko guraso gazteen arteko lagunartean, bizikidetzaren egunerokotasunean, besteak beste, gaur egun mahai gainean den zabor bilketaren gaiaz hausnarketa egin eta hiritar guztientzat aukera onenaren bila lanean ari da. Bosgarren Edukiontzia Aldeko Mugimenduaren Gipuzkoako bozeramalea da.

Felix Aiestaran

Bosgarren edukiontzia Aldeko Mugimenduaren alde 7.500 sinadura bildu ditu Tolosan eta 11.000 Tolosaldean. Denak mahaiaren alde berean eserita, beste tokietarako eredu garria izango den irtenbide adostu baten alde lan egiteko prest azaldu da.

Nola sortu da Bosgarren Edukiontzia Aldeko Mugimendua?

lurreamendi Auzotik aurreko Udalarari konpostagailuak jartzea

proposatu genion. Bosgarren edukiontzia jartzeaz zegoela, horretan hastea ez zuela merezi adierazi zitzaigun. Bestela, konpostagailuen mantenuaz auzotarren batek arduratu beharko zuela: hezetasuna kontrolatu, nahasketa egin... Horretan utzi genuen. Udal aldaketarekin, Atez Atekoaren proposamena atera denean, Atez Atekoaren aurka-koak baino, bosgarren edukiontzia Aldekoak bilakatu gara.

Nola dago osatuta taldea?

Euskal Herrian blokeko funtzionatzen da, alderdi desberdinetan bilduta, baina gu herritar

talde modura bildu gara. Arazoak ditugu. Ulertzen ditudan arrazoiengatik jendeak ez du gure aukeraren alde aurpegirik eman nahi. EAJaren alde ari garela aurpegiatzen digutenean, gogoratu beharra dago Euskal Herrian gai guztiak politizatu egiten direla.

Birziklatze arloan ez al da urte gutxian aurrerapen handia egin?

Duela hogeita urte edukiontzietan zaborra biltzen hasita ginelako, ezer ez egitetik, bat batean denon harridurarako ondo bereizita biltzera iritsi ginen. Aurreko alkateari esaten nion bilketa tasa txukun batera iritsita, ez zela ezer berririk egin eta bazela zerbait egiteko garaia. Kontuan izan behar da materialak ere azken urteotan asko aldatu direla, zer non sartu behar den jakiteko ia kimikaria izan behar duzu. Atez Atekoa ezarri duten udalek %80ko tasa aipatzen dutenean esan beharra dago hori jakitea ere ezinezkoa dela. Gaiak zenbat biltzen den jakin dezakete. Beiratik errefusa ehuneko bat izango da, papera ondo biltzen da, plastikoaren erdia baino gehiago bota egiten da, birziklatzeko ez duelako balio. Hernanin egin dutenetik dena ez zait gaizki iruditzen, parkeetan jarri dituzten zaborrontzi bereizitako ondo daude. Hemen kalean

haurrari jogurta eman ondoren ontzia birziklatu nahi baduzu zure poltsan gorde behar duzu.

Zein alde dago Atez Atekoa eta Bosgarren Edukiontzia Aldeko Mugimendua artean, bilketa emaitzen aldetik?

Ez da alde handirik izango. Sasieta Mankomunitateak bosgarren edukiontziaz %50a biltzen du. Bosgarren Edukiontzia kontroladore elektronikoa du nork erabiltzen duen edo ez jakiteko. Bere erabilpena bultzatzeko kanpainarik ez da egin. Gaiak bildu ondoren asko eta asko birziklatu gabe lurperatzen bada, jendea ezin zaio bereizteko ardurak har dezala eskatu. Lehenik, erakundeek birziklapena ahalbidetzeko bitartekoak jartzea eskatu behar zaio. Ehuneko hogeia ez du erabiltzen eta edozein arlotan intsumisio portzentaje arrunta da hori. Organiko eta errefusean egin behar da lanketa, beste gaitan bilketa ondo egiten da.

Herritarrek gehiago birziklatzea zer egin behar da?

Plastiko birziklapenerako biplanta daude; bat Andoainen eta besteak Irún aldean eta biak gailio. Hernanin egin dutenetik dena ez zait gaizki iruditzen, parkeetan jarri dituzten zaborrontzi bereizitako ondo daude. Hemen kalean

ko dira dena birziklatzeko. Gai organiko fresko eta sukaldetan egindakoak batera biltzea ez da zuzena, ahalik eta gehiago jasotzearen zenbaki handiak lortuko dira, baina birziklatzeko ez dugu zereginik izango freskoak hutsik animaliei eman diezaikegula, baina sukaldetan eginikoak nahastuz gero ezin zaie eman. Nahastuta basorako besterik ez du balio. Baina hemengo basoetan ez dugu horren beharrik. Ingurune lehorragoetara eramanez dezakegu konpost hori, baina garraioan zenbat litro gasolio behar den ere kontuan izan beharko da. Errauskailuak ez dakit minbizia sortzen duen, baina dieselak, bai.

Errauskailua beharrezko izango al da?

Ez ditugu datuak esku artean. Europatik alde batetik esaten zaigu errauskailuak kaltegarriak direla, kendu eta zabortegiak itxi egin behar direla. Ahalik eta gehien birziklatu eta zabortegi kontrolatu txikietan bildu behar dela zaborra adierazten da. Ez dakit beharrezkoak izango diren. Norberak bere ardurak hartu behar ditu iruditzen zait. Konpost guneak jarri behar badira, Apattan egon beharko dute, inerteen bilketa herrian eta errauskailua Usabalen ur zirkuitu

baten bidez, igerilekuko beroketa doanekoa izan dadin. Aztertu egin beharko da errauskailua osasunarentzat kaltegarria den edo ez, lehenik. Errauskailu handia Zubietan zentralizatua jartzea erabaki zen, aldamenean izango den kartzela berotzeko. Hori mantentzeko zabor pila beharko dela ere beste auzi bat dago hor...

Ba al daude horrelako errauskailu txikiak abian?

Bai, hiri handietan daudenak halakoxeak dira. Sistema bakoitzarekin CO2 isuriaren azterketa egin behar da. Alderdi politiko batek bosgarren edukiontzia errauskailuarekin lotu du eta hori ez dut ulertzen. Bertarako irtenbidea ematen du bosgarren edukiontzia Aldekoak daukagunetik abiatuta.

Zertan datza arazoa? Zaborra gaitz biltzea baino gero berarekin zer egin ez jakitean?

Beira, metala, papera, olioak, arropa biltzen da, errefusa jaitsi behar du... Ez dakigu errefusa %10a edo %30a den... Hernanin horrenbeste sagardotegi egonik, beira birziklatu egiten da... Ez al da posible beira garbitu eta bererabiltzea? Hemen bi neurri daude: diru alorreko bata eta azterna ekologikoa, bestea. Guz-



Josu Iztueta Azkue
Bidaia

Bidean (H)irumugarrietara abiatu eta Laumugarrieta topatu

Irumugarrieta izeneko leku asko dago Euskal Herrian, toponimo ugaria da gure inguruan, urruti gabe, (Berastegi, Lizartza, Areso) herrietako lurrek Ulitik gertu dagoen Irumugarrieta parajearen egiten dute bat, gaurkoan Ernio iparraldean dagoen beste Irumugarrietara egingo dugu ibilbidea, hiru orduko mendi buelta erraza Larraulerraino ko-txez joanez gero.

Aurtengo udazkenean egin dituzte eguraldi ederrak baino le- rro hauek idatzeko txangoa os- tiralean egitea erabaki genuen. Urriaren azken asteburua izaten da ordua atzeratzeko gaua bai- na aurten negua aurreratu den eguna izan da, euria erruz astean zehar eta hotza gero, goi men- dietan elurra bisitan izateraino.

Larraulgo plaza bertatik (264 m) hasi liteke asfaltoan gora oi- nez, lehen seinaleak bertan iku- siko ditugu, Murgil (467 m) men- di magalean daude Gurutzeaga eta Izagirre baserriak, bertaraino autoz igo gaituzke gaur bezala- ko eguraldi petralarekin. Handik ezkerretara zeharka hartu "to- douno" pista jarraituz eta ondo disimulatutako ur deposituen azpialdetik segi bideari, mar- ka zuri horiak (PR-G177) bistan dira tarteka zuhaitz, hesola eta harrietan, porlanezko pista has- ten denean ezkerreko aldatatik hartu, hemen berriro "todouno"

Tolosaldean Irumugarrieta men- dia aipatuz gero gehienok Ara- larren dagoen Intzeko Dorrea (1430 m) ekarriko dugu gogora, Oarsoaldea edo Bidasoaldean baldin bagaude berriz Aiako Harria Parkeko tontorretako (810 m) batez ari garela pentsatuko du mendizaleak, (Irun, Oiartzun, Lesaka) elkartzen dira hor.

hasten da baino beltzagoa, egu- raldia ere horrelakoxea dago, lai- noa, haizea, euri jasak eta tarteka kazkabarra.


Baso babesean goaz baina belardi ederrak badaude ezker eskuma, larrean dabilzan behiak ez ditu gaurkoan egarriak pena- tuko, aurrerago aurkituko ditu- gun behorak ere sumatuko dute negua gainean dutela.

Hurrengo bidegurutzean es- kuinekotik segi, lainopean Mu- gallegi (531 m) eta Arburua (596 m) muinoak ez ditugu ikusten baino eguraldi onarekin ez dago galbiderik, Aitzpel eta Ernio mila metrotik gorako tontorrak parez pare dauzkagu.

Lurrera begira joanda nabari da udazkena dela, azken asteotan haizeak egin ez duena euri zapa- rradek egin dute, lokatza, orbela, gaztaina morkotsak eta gaztaina aleak nonahi, marroi kolorekoa dago bidea baina bidegurutze batean gorri gorria ageri da, as- paldian ikusi gabe nengoen, ba- serrietan erreteila egiten denean teila zaharrak bideak konpontze- ko estimazio handia izaten dute- la. Tarteka garai bateko galtzada ere nabarmen da, harri losa handiz egindako bidea da, hain- bat zati ikusita ulertzekoa da La- rraul aldeko baserri askotan "lera" gurdia baino gehiago erabili izana, neronek horrela gogoratzen dut amaren jaiotetxeko osaba.

Pagadiak ez dute oraindik hos- toa erabat galdu, aldian behin agertzen diren gorosti arbolak aldiz ez dute horren beldurrik. Bidegurutze bateko postean -Iru- mugarieta 1.3 km- irakurri dugu, harri, sasi eta garo artetik, Urkidi pasa, (Ernio Txiki magaletik alda- pa pikoa igo eta Irumugarrietako lepoan gaude (772 m). Bideguru- tze hau genuen gaurko jomuga, geziek ondo dioten bezala Zela- tun eskuinera, Alkiza ezkerrean eta gu gatozen Larraulgo bidea elkartzen dira hemen. Baino do- zena bat metrora mugari boro- bila bista bistan eta hara non A-E -A-L jartzen duen garbi, ustezko hiru mugarieta laumugarrieta da, bertan elkartzen baitira Al- bizardur, Errezil, Alkiza eta Larraul- go lurrak.

Itzulerako bidea leku beretik egitea erabaki dugu baina egu- raldi ona izanez gero jaisteko beste bide batzuk aukeratu ge- nitzake... Guk eguraldiarekin ez dugu asmatu baino ea zuek as- matzen duzen Gipuzkoako 88 herrietatik zenbat "Laumugarrieta" dauden!



laxe, sistema ezartzea erabakita egongo zen hemen ere. Ez dakit zergatik, baina hemengo udalek bide motza hartu dute. Urrats txikiak emanaz, beste modu batera egin zezaket. Sistema erabat aldatuz gero herritarrek ez dute onartzen. Zaborraren gaia ikurtzat hartu da, baina ezker abertzaleak baditu beste hainbat lan puntu. Nire ustez beraien kalterako izango da.

Zenbat sinadura bildu dituzue?
Tolosan 7.500 sinadura bildu ditugu bosgarren edukiontzia- ren alde. Eta Tolosaldean 11.000 sinadura bildu ditugu. Herri txiki- tan zailagoa da sinadurak biltzea.

Galdeketa egin behar al da?
Galdeketa azken neurria izan- go da. Lehenik, elkarlanaz eta jendearen inplikazioaz aurrera egingo dugu. Herritarrek egin behar duenaz ados egon behar du, Udalak, Diputazioak edo Eusko Jaurlaritzak bezalaxe bere betebeharrak betetz. Herritarrek ezin dute *sprint*-ean hasi, Foru Diputazioak bere lanak egin ez dituzenean.

Zer alde dago atez atekoa eta bosgarren edukiontzia- ren artean?
Lana bakoitzak bere etxean egin behar du: deserosoa da. He- rria zikindu egiten du eta gaine- ra, garestiagoa da. Intimitatearen gaia ere hor egon daiteke. Udal batek zerbitzurik ahalik eta hobe- ren eta merkean ematen saiatu behar du. %80 biltzen dela egia balitz, hala ere... Plastikoa, beira eta papera biltzeko ez dira por- tzentaje hobeak lortzen. Dagoen herri guztietan atez atekoa jarri- ko delako. Onartzen dut itsusia izan daitekeela, baina bestela, Debagoienan egin duten beza-

ren edukiontzia- ren dena libre denik, jendea estutu egin behar da. Zaborra gaueko 20:00etatik 22:00etara jaitsi behar da. Bos- garren edukiontzia jendeak organikoa ondo botako duela pentsatu behar da, gehienez oker botatzen duena errefusera botako du, baina ez da alderan- tziz izango. Organikoa %80a garbia izan behar duela aipatzen da baliagarria izan dadin eta hori betetzeko fiskalizatu egin behar da. Plastikorekin egiten den modura gero ere organikoarekin bereizketa egiteko langileak jar daitezke.

Birziklapen arloan oro har zein egoeratan gaude?
Birziklatu daitekeen guztia aintzat hartuta gaizki, baina zein edukiontzia jartzen diren kontuan izanik, oso ondo gaude. Organi- koa botatzeko bosgarren edu- kiontzirik ez dugu. Jendeak ondo egiten duela esaten du, baina gero batzuek ez dute betetzen.

Nondik joko du Tolosaldeko birzi- klapen prozesuak?
Lanean hasiko gara uste dut eta urrats txikiak emanaz, atez atekotik baino bosgarren edu- kiontzitik gertuago egongo den aukera egingo dela uste dugu. Hor badago beste kontu bat; hainbat zabor sortuz gero hain- bat ordaindu egin behar dela dioena; horrela hasiz gero biho- tzekoa eman dionari ebakuntza kobratzen hasiko dira! Bestetik, badira egunero zaborra sortzen duten elkarte eta tabernak egu- nero biltzeko bosgarren edu- kiontzia behar izango dutenak. Eseri gaituzten mahaiaren alde berean eta denon artean beste toki guztietarako eredu- garrria izango den irtenbide adostua bila dezagun.

ti hori orekatu egin behar da. Agian, beira berria Txinan egiten da eta hemen garbitu egin behar da...

Zaborraren gaia ez al dago erabat politizatu eta gaiztotuta?
Besteek zer pentsatzen du- ten jakin beharko genuke, baina kosta egiten zaigu elkarrengana hurbiltzea. Bloketan ez mugit- zen ikasi beharko dugu. Alderdi politikoez gauza asko dituzte onak; horien artean militanteak. Militanteek izugarriko lana egi- ten dute eta politikariek ez dute merezi duten militantzia. Militan- tziak duen alde txarra bloketan funtzionatzearena da. Sinadurak esan didate arrazoiak dugula, bai- na ezin dutela sinatu eta nik hori ulertzen dut. Hemen ez da zer esaten den aintzat hartzen, nork esaten duen, baizik.

Jendea informatuta eta prestatu- ta dagoela iruditzen al zaizue?
Ez, hemen etengabe presta- tzen aritu beharko da. Informa- zioa jaso eta egunerokotasuna

aldatzeko prest egon beharra dago. Atzo balio zuenak gaur ez du balio, gizarte aldakorrean bizi gara, baina horrenbeste informa- zioaz gainezka eginda ez dakigu zer egin, askotan.

Zer dela eta hasi zarete sinadurak biltzen?
Egingo den bidea aurretik idatzita dagoela iruditzen zaigu, hainbat alkatek atez atekoaren aukera aldarrikatu dutenean. Azken urteotan Udalean gai honetan lanean aritu naiz herritar modura. Udal berria osatzean, teknikaria aldatu zen eta zerren- tziak duen alde txarra bloketan funtzionatzearena da. Sinadurak esan didate arrazoiak dugula, bai- na ezin dutela sinatu eta nik hori ulertzen dut. Hemen ez da zer esaten den aintzat hartzen, nork esaten duen, baizik.

Jatorrin, eskola eta familia magrebtarrak elkar gerturatuz

Saad Malec Jatorrin Etorkinen Aldeko Elkartearen lehendakaria da. Jatorrin ikastetxeak eta familia immigranteak bat egiteko proiektua garatzen ari da. Iaz diagnostikoa osatu eta aurten zailtasun egoera horiei konponbidea errazteko aukerak aurkeztu dizkie Jatorrinek eskualdeko ikastetxeei.

Erredakzioa

Saad Malec-ek jakitera eman bezala, Jatorrin etorkinen aldean egiten duen elkarrekin da, partaide gehienak magrebtar eta pakistandar munduarekin harremana dute. Elkarrekin foro ezberdinetako partaide da, tartean Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Komisiokoa. Bertan, lehen eskutik immigrazio mailan existitzen diren kezka nagusien berri jasotzen dute. Haietariko bat, immigrazioa eta eskola porrota batzen duen ekuazioa da.

Jatorrin elkarrekin errealitate honekin kezkatutako, egoeraren inguruko datu gehiago izateko lanean hasi zen. 2011. urtean "Familia immigranteen gerturatzea ikastetxeetara" proiektuaren diagnostikoa garatzen hasi zen Gipuzkoako lau zonalde ezberdinetan:

Goierrri, Donostia, Errenteria eta baita Tolosaldean ere. Diagnostikoa osatu ahal izateko, Saad Malec-ek argitu bezala, ikastetxe ezberdinekin harremanetan jarri eta atzerritar familia hauekin, zein ikasle atzerritarrekin harremana zuten irakasleekin bildu, elkarriketarako izan eta inkestent bitartez datu bilketa burutu zuten.

Adituen iritziak jasota, eta eskualdeko familien egoerarekin alderatuta, Jatorrineko lehendakaria bat dator ondorengo baieztapenarekin: "familiek ikastetxeetan duten parte hartzeak eragin zuzena du seme-alaben eskola arrakasta edo porrotan".

Honako egoeratik abiatuta, diagnostikoak atzerritar familiek eskolan duten parte hartze murriztaren zergatia ezagutu nahi izan zuen. "Zergatik ez duten guraso elkarrekin, eskola kontseiluetan, eskola amaiera festetan, Olentzero eta Inauteriak bezalako festetan parte hartzen jakin nahi genuen, egoera aldatu eta ikasleen eskola egoera hobetu ahal izateko", jakinarazi du

Saad Malec-ek. Atzerritar guraso horiekin izandako hartu-emanek erakutsi duten bezala, parte-hartze ezaren arrazoia konfiantzan kokatzen da.

Aipatu diagnostikoak Jatorrin elkarteari bidea eman dio, egoera konpontze bidean proiektu ezberdinak aurkezteko. "Gu magrebtar eta pakistandar jatorria duten familiekin lan egiten dugu. Diagnostikoak ikasleria bakoitzaren beharrak aurkeztu dizkigu. Hortik abiatuta gaur egun lantzen ditugun proiektuak jaio dira", argitu du Jatorrineko lehendakariak.

Diagnostikoak ondorengo adibide orokorrak planteatu ditu, Saad-en ahotan: "magrebtar eta pakistandar familiek ez dira eskola bileretara gerturatzen ulertuko ez dutela pentsatzen dutelako; familia hauen ustetan euren seme-alabek euren hizkuntza eta kultura mantendu behar dituzte, arabiar hizkuntza klaseak eskatzen dituzte...".

Irakasleriak bestalde, bere kezka ere erakutsi dizkio Jatorrini: "irakasleak familia eta jatorrizko

herrialdearen informazio gutxi dauka, baita hango irakaskuntza-metodoari buruz, horregatik gerturatze tailerrak eskatzen dituzte irakasleek".

Izan ere, heldu berri den familia batek bertako irakaskuntzan ematen diren oinarrizko jarraibideen informazioak ez duela lurbiltzen du Saad-ek: "bileren, jangelen, tutorea eta tutoretza orduen, irteeren metodologiaren inguruko informazioak ez dute".

Egoerari aurre egiteko tailerrak

Egoera honen aurrean Jatorrinek hainbat tailer jarri ditu abian, eskualdeko ikastetxe ezberdinei indarrean jartzeko aukera eskainiz. Batetik, ikastetxeentzat sentsibilizazio tailerrak eskaintzen ditu Jatorrin elkarrekin, magrebtar herrialdeen inguruko informazioa zabalduz, ikasleek euren ikaskideen jatorriaren berri izan dezaten.

Bestetik, 4 eta 14 urte bitarteko haurrei arabiar hizkuntza eta kultura ikastaroak eskaintzen dizkiete Tolosako Kultur Etxean, ostiralero. Ikastaroak Jatorrineko elkarrekin hasi baziren ere, Kultur Etxera eraman dira, Saad-ek argitu bezala, "publikoak egitearren".

Hirugarren kezka euskara sortzen du eta horri ere irtenbidea bilatu nahi izan dio Jatorrin elkarrekin. Familia hauek euskara antzeman du Tolosako elkarrekin. Horregatik, eskaintza aztertu-



ta, proiektu berri bat martxan jarri beharrean Banaiz Bagara elkarrekin asteazkenean Tolosako Kultur Etxean eskaintzen duen atzerritarrentzako euskara ikastaroekin bat egin dute: "ez zen egingarria ekintza paraleloak antolatzea. Onena indarrak bateratu eta zegoen ikastaroa aprobetxatzea zen", dio Saad-ek.

Azkenik, atzerritar jatorria duten ikasleen egoera hobetu nahiarekin Jatorrinek bitartekaria kontraturatu dugu, familia eta ikastetxearen artean lan egiteko. Eskolak behar duenerako prest dago. Informazioa emateko beharrezkoa izaten da bitartekari baten lana. Familiek sentitzen duten barrera apurtzen laguntzen dute bitartekariak. Izan ere, Saad-ek zehaztu bezala, zenbaitetan eskola eta familiaren arteko bitartekaria ikaslearen motxila baino ez da izaten: "informazio orriak bertan sartzen dira, baina familia askoren jatorrizko herrialdeetan ez dago horrelako ohitura-

rik eta zenbaitetan bestelako metodoak behar izaten dira. Seme-alabak irteera batera bidali behar direnean bezala; familiak informazio zehatza jaso behar izaten du eta horrelakoetan bitartekariari deitu behar izaten zaio".

Proiektu hauek guztiek Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntza jasotzen dute. Eskualdean Samaniego ikastetxeak, Hirukide ikastetxeak eta Uzturpe ikastolak martxan jarri dituztela zehaztu du Saad-ek. Jatorrinek bilerak izan berri ditu Tolosako Laskorain ikastolarekin, Villabonako Dr. Fleming Ikastetxearekin eta Zizurkilgo Pedro M. Otaño ikastetxearekin.

Jatorrin elkarrekin ikastetxeekin harremana estutzen doan heinean, kasuistika berezia antzemango dutela ziur da Saad. Egoera zehatz bakoitzari irtenbide zehatza bilatzen ahaleginduko da Jatorrin elkarrekin. Horren adibidea da, hurrengo urterako aurreikusen duten genero ikuspegiaren azterketa. ©

Saldias Miguel

CORREDURIA DE SEGUROS ASEGURUETAKO ARTEKARITZA
N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua
Kotxe-asegurua
Istripuak
Gaisolasunak
Ospitalizazioak
Subsidioak
Lan-istripuak
Enpresa txiki eta ertainak
Erantzukizun zibila
Etxe-asegurua
Denda-asegurua
Erretiroak
Inbertsio fondoko

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
www.saldias-miguel.com

Tolosa Bit
Informazioa Zerbaitak

Ondaregaitzak eta konpostak
Egurren eta papirgaitzak
Materiazkoak

Oria kalea, 14-behea
Tolosa - Tel.: 943 676 156
Faxa: 943 016 857
tolosabit@facilnet.net
www.tolosabit.es

HALCON
BIDAIAK

Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxa: 943 674 113

errrotatxo
okindegia

Andia kalea, 3 Amaro, 9-A
Tel.: 943 655 492 Tel.: 943 671 038

irakurri entzun Ikusi

Anubis 3.0 Arimaren pisatzea

Dani Fano

Komikia. Gadu zaharra isolaturik bizi da urrutiko asteroide batean, lagun bakarra bere robota duela. Ez du jendea maite. Baina, halako batean, robot zintzoak tresna bitxi bat aurkituko du biltegi narras batean. Komikian zehar, Gaduk bost arima gabeen istorioak kontatu dizkio bere robot leialari.

Zazpikoloroa DVD-a
Pirritx, Porrotx eta Mari Motots

Zazpikoloroa ikuskizuna, 2012ko martxoaren 6an Andoaingo Bastero Kulturguneko antzokian zuzenean grabatutakoa da. Bertan erreportaje eta bideoklipak ikusgai daude: "Iri konpontzailea Etiopian" -Etiopiar egindako bidaiaren hausnarketa-; "Motxila 21" -koskak gaintzeko nahiak elkartu dituen rockeroak...

Bypass
Patxo Telleria eta Aitor Mazo

Komedia erromantiko honek generoaren osagai klasikoak erabiltzeaz gain (amodioa eta desamodioa, egia eta gezurra...) tragediari lapurturiko eduki bat ere baliatzen du: heriotza.

hitzorduak

Azaroaren 2tik 16ra bitarteko

Babarrun jana

Azaroak 4, igandea. Hauspoa kultur elkarteak antolatutako babarrun jana. Ibarra, San Bartolome plaza. 14.30.

44. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa

Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa. Azaroak 1-4. Tolosa.

Azaroak 1, osteguna. Santa Klara elizan Musika Erljiosoa Sailean Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten Ahots Taldeen emanaldia. 11.30.

Leidor Antzokian Folklore eta Polifonia sailetan Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten abesbatzen kantaldia. 16.00.

Leidor Antzokian, Folklore eta Polifonia sailetan Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten abesbatzen saioa. 19.30.

Azaroak 2, ostirala. Leidor Antzokian, Musika Profano sailean Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten abesbatzen ekitaldia. 16.00

Leidor Antzokian, Folklore eta Polifonia sailetan Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten abesbatzen saioa. 19.30

Azaroak 3, larunbata. Santa Klara elizan Musika Erljiosoa sailean Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten Ahots Taldeen emanaldia. 11.30

Leidor Antzokian, Musika Profano sailean Abesbatza Lehiaketan parte hartzen duten abesbatzen ekitaldia. 16.00

Tolosako Udalaren eskutik Harrera Ofiziala abesbatza zuzendariei eta Lehiaketak gonbidatutako nazioarteko pertsona guztiei. 21.00

Beotibar pilotalekua, Abesbatza Dantzaldia bertan Epaimahaiaren erabakia jakitera emango delarik. 21.00-24.00

Azoka

Azoka berezia. Bedaio. Azaroak 4, igandea.

Azoka berezia. Berastegi, frontoia edo futbol zelaia (eguraldiaren arabera). 11.00etan hasita. Gaztalehiaketa, postu lehiaketa, argazki lehiaketa, ardi-ahari eta bildots lehiaketa, animalia erakusketa, baratze lehiaketa, arroz-esne lehiaketa.

Liburu Azoka. Azaroak 16, ostirala. Tolosa, San Franzisko pasealekua.

Kontzertua

The Romanticos. Azaroak 9, ostirala. Tolosa, Fronton kafetegia. 23.00

Erakusketa

Pornografia. Azaroak 9 arte. Tolosa, Aranburu jauregia. Box.a elkarteak ekoiztuta.

Sexu eta ugalketa eskubi-deak, eskubiderik gizatiarrenak. Azaroak 10 arte. Tolosa, Aranburu jauregia. Medicus Mundiren erakusketa.

Mariona Masgrauren artea. Bidaia pedagogikoa, txotxongiloaren mundura. Martxoaren 10a bitartean. Tolosa, Topic. Mariona Masgrauren sortzaile gisa egindako ibilbide osoa biltzen duten 110 pieza egongo dira ikusgai.

Antzerkia

Klown ikastaroa. Azaroak 10, larunbata. Tolosa, Kultur Etxea. 10.00. Irakaslea: Ana Perez.

Ticket. Clownik. Azaroak 16, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30.

Zikloia 2012. Jonny-Platz (Jon Plazaola). Azaroak 15, osteguna. Tolosa, Orbelaberna. 22.30

Zinea

III. Nazioarteko Zinemaldia Zeinu Hizkuntzan. Azaroak 8-10. Tolosa

Azaroak 8, osteguna. El abrazo de los peces. (Chema Rodriguez). Tolosa, Leidor. 19.15 eta 21.45

Azaroak 9, ostirala. Zinema zeinu hizkuntzan ikasleen

tzat. Tolosa, Kultur Etxea. 09.30

Azaroak 10, larunbata. Bisitaldia Tolosatik barrena (09.30), laburmetraien proiektzioa Leidorren (10.30-13.30 eta 16.30-19.30) eta sarien banaketa eta ondoren afaria Tolosako Zahar Etxean (21.00).

Udazkenean Kultura. Alegia

Nola dakit nire etxea osuntsua dela? Hitzaldia. Azaroak 6, asteartea. Koldo Nuñez -ek eskainita (geologian doktorea, geobiologoa eta psikoterapeuta). Alegia, Kultur Etxea. 19.30

Katillukadak. Lankuk aurkeztutako haur antzerkia. Azaroak 9, ostirala. Alegia, Kultur Etxea. 17.30

Garai Bateko Alegia II Jaialdiaren proiektzioa. Azaroak 13-16. Herriko argazkilarien eskutik. Alegia, Kultur Etxea. 18.30-20.30.

Mus Txapelketa

XI. Mus Txapelketa Azkarra. Azaroak 10, larunbata. Tolosa, Beotibar Pilotalekua, 16.30. 3.350 € sarietan. Fronton kafetegia antolatuta. Izena emateko: fronton@jeub.org edo 943 651470

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagunduak

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Automatismo elektrikoaren muntaia eta konponketa (koadro elektrikoak)	2012.10.22	60
Aplikazio informatikoak testuak tratatzeko (Word)	2012.11.05	30
Txirbil harroketa bidezko prozesuen mekanizazioa (Fresatzeko makina)	2012.11.19	80
Rutulo elektrodo bidezko soldaketa (euskaraz)	2012.11.26	90

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora. Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa. Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



Goardiako farmaziak

Ostirala, 2 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Asteazkena, 7 Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa	Astelehena, 12 Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa
Larunbata, 3 Echeveste, Jesus M ^a (Gernikako arbola, 3) Tolosa	Osteguna, 8 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Asteartea, 13 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
Igandea, 4 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	Ostirala, 9 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	Asteazkena, 14 Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
Astelehena, 5 Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa	Larunbata, 10 Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	Osteguna, 15 Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra
Asteartea, 6 Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	Igandea, 11 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Ostirala, 16 Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian geriatrikoa	943 672 932
Medikua	Udaltzaingoa	943 675 858
Baliarrain	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
Medikua	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza Tolosa Gasa	943 675 320
Medikua	Lizartza	
Irura	Medikua	943 682 077
Osasun zentroa	Orendain	
Tolosa	Medikua	943 655 595
Anbulatorioa, larriald.	Orexa	
San Esteban, hitzordua	Medikua	943 682 228

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com



**SANTA
LUZIA**
GARAJEA

Grua zerbitzua
24 orduetan

943 653 491
943 653 874
943 653 985
943 806 020
Santa Luzia, 1-TOLOSA

SANZ
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,
7 behea
20400 Tolosa

Muxutruk

Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak barka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Klase partikularrak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

Etxebizitza

• Pisua salgai Erremeritari kalean, 42 m² eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Jaka-ko urbanizazio batean azken 6 etxebizitza salgai garaje eta trasteroarekin. Prezioak: 120.000,- € eta 145.000,- € artean. Erabateko kalitatezko ekipamenduak. Informazio gehiagorako deitu 619311255ra.

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Furgoneta Volkswagen T4 modelo, multivan salgai. 241.000 km. Egoera onean. Kanbio automatikoa. 102 zaldi. 12.500 euro. 609481124

Horoskopoa

Azaroaren 2tik 16ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21
Euforia ez da bidelagun egokia erabakiak hartzeko garaian, inguruak guxtietsiz gero arazo larrietan murgiltzeko aukera izango duzu. Konfiantza handiko egunak dira; positiboa errealitateki aldentzen ez bazara.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21
Kontu materialek buruhauste bat baino gehiago ekarriko dizute. Egoera honen aurrean lasaitasuna eta hausnarketa egokiena izango dira. Arazo ekonomikoarekin harremana duten pertonekin hitzarmen bat adostu beharko duzu.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21
Gatazkak tartean badaude ere, momentu onean bizi zara. Ersketa eta inbertsio guztiak ez dira egokiak izango baina zortea aldeko duzu eta egoera zuzentzeko ahalmena izango duzu.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22
Zalantzak eta ziurgabetasuna alboratu behar dituzu, zure eskubideak defendatzea baino ez dagokizu. Etsaiei aukera ematen badiezu, min emango dizute. Taldeak indarra sortzen du.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22
Antzinako arazoak agerian geratuko dira, zortea ere ez duzu aldeko izango, gogoz kontrako egoera sortuko zaizu. Honek hasiera bateko egoerara eramango zaitu. Pazientzia izan beharko duzu, aukerak aztertu eta plan berriak egin.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22
Bete beharreko eginkizun ugari dituzu eta horrek estutasuna sortuko dizu. Lasaitasunez hartu eta antolatzea baino ez dagokizu. Aisialdirako egun aproposak ere izan daitezke; naturak behar duzun lasaitasuna eskaini ahal dizu.



libra

Irailak 23-Urriak 22
Garai bateko arazoak konpondu gabe badaude ere, egoera hobetu da. Zure jarrera positiboa izanda, konfiantza asko irabazi duzu. Irudia zaintzea ezinbestekoa da, negoziaketa ezberdinetan puntuak irabazten lagunduko dizu.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22
Egun zailak datoz, garrantzitsuena osasuna da, burua zaindu ezazu eta zuhur joki ezazu. Osasun arazoren bat sumatu bezain pronto konponbide bila hasi zaitez. Haserrealdiek osasun arazoak zaildu ditzakete.



sagitarious

Azaroak 23-Abenduak 21
Arrisku egoerak ekidin itzazu. Jarduera handiko egunak datoz, zailtasunak zailtasun, arrakasta uste baino gertuago dago. Inguruko pertsona oro ez da zure alde egongo.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20
Prestaketa garaia dator, taldeka lan egiteko aukera, jende berria ezagutzeko beta. Adiskideek zure erabakietan zeresan handia izango dute. Alor profesionalan zalantzak ageriko dira, aldaketekin tentuz ibili beharko duzu.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20
Familiarekin harremana izateak on egingo dizu. Hala ere, horrek ez du esan nahi arazoak desagertuko direnik, baina partekatzeak ondo egingo dizu. Hirugarren pertsoneri eragingo dien erabakia hartu beharko duzu.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20
Elikadura egoki batek behar duzun energia eskainiko dizu. Lanari dagokionez, muinari baino ez erreparatu. Gaur egin dezakezuna, ez ezazu biharko utzi.

[publi-erreportajea]

Mujika

Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin

Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma daukate 507 establezimenduk eta, urte amaieran 800 izango dira. Arlo horretan Praktika Egokien programaren helburua zerbitzuen kudeaketa hobetzea da.

Aldi berean, bereziki negozio txikiei zuzenduriko programa da, Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiriak baino exijentzia maila baxuagoa du, baina epe luzearako konpromiso batekin. "Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin" programaren helburu nagusia bezeroarekiko zerbitzuan hobekuntza etengabea da. Tolosako Mujika erretegi eta prestatutako jakien establezimenduk kalitatearen aldeko apustua egin du. Mari Jose Mujikak ondorengo galdereri erantzuna luzatu die.

Zeintzuk izan ziren programa honetan parte hartzeko arrazoiak?

Tolosako Turismo Bulegoarekin harreman handia dugu eta praktika egokien programan parte hartzeko gonbitea luzatu zigun. Ikastaroan izena ematera animatu ginen. Probatu eta interesgarria iruditu zitzaigun.

Ze abantaila ekarri dizkizue diplomak?

Orain arte garrantzi gehiegirik ez zuten zenbait gauzek garrantzia izaten hasi dute. Adibidez, janarien eta hozkailuen tenperaturei ez genien erreparatu... Tankerakoak beti ondo daudela pentsatzeko joera dago, eta programa honen bitartez haiek ezarritako ereduak betetzen ditugu.

Ze hobekuntza izan dira barne funtzionamenduan, kudeaketan eta azpiegitura gaietan?

Programan hasi aurretik eginbide asko eta asko airean geratzen ziren, egun langile bakoitzak bere eginbeharrak zehazturik ditu. Zaborra zeinek atera, garbiketa eta tankerakoak erabat banatuta ditugu orain, eguneko lanak kartel batean apuntaturik ditugu.

Bezeroaren poztasun mailan ze hobekuntzek eragin dute zuzenean?

Bezeroak ez du gehiegirik esaten. Kartela ikusi eta ez daki identifikatzen, oraindik informazio eskaini behar zaio. Gehiago komunikatzea beharrezkoa litzateke; adibidez,

tankera honetako elkarrizketa laburrak eskainiz.

Nola zuzenduko zinateke zu sektore turistikoa profesionalari Kalitate Turistikoaren konpromisua bereizgarria ezartzeko? Zer esango zenieke?

Interesgarria dela esango nieke. Hasieran edozein hitzaldik denbora galtzea ematen badu ere, tankerako ekimenak onuragarriak, bideragarriak eta interesgarriak dira norberaren negozioarentzat.

Kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskumenen artean zeintzuk azpimarratuko zenituzke?

Goizean goiz lanera sartu eta badakigu zein den langile bakoitzaren eginbeharra, lanak aldeztu aurretik banatuta ditugulako. Lehen egon bazeuden hainbat lan inorenak ez zirenak eta denon artean egin behar genituenak, orain bakoitzak badaki zer dagokion eta zer egin behar duen. Honek argudio gutxiago ere ekartzen du.

Kalitatearen kultura zure erakundearen bultzatzeko nolako aldaketak sartu dituzue edo sartzeko asmoa duzue?

Gehien gainbegiratzen duguna tenperatura da; bai hozkailuena eta baita janariena ere. Lehen zenbait gauzei ez zitzaion ezta termometroa sartzeko eta gaur egun dena neurtzen da.

Ze abantaila eskaintzen dizkio zure establezimenduari helmuga bereko beste batzuekin elkarlanean jarduteak?

Besteekiko konfiantza izateko balio izan du, lehen ez genuen kontaktu gehiegirik bestekin. Gaur egun denok talde berdinean gaude, denok ausartago bihurtu gara, mesedeak eskatzeko orduan, iradokizunak egiteko orduan, zalantzak argitzeko orduan. Errazagoa da orain.

Basquetourren eta Jaurlaritzaren aldetik, eskualdeko lehiakortasun teknikoaren bidez jasotako laguntza positiboki baloratuko al zenuke? Ze aspektutan?

Tolosako Turismo Bulegoaren aldetik jasotako laguntza era oso positiboan baloratzen dut.



Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetour-ek, enpresariei behar dituzten tresnak eta laguntzak ematen dizkiete beraien erakundeak lehiakorrak izan daitezkeen ondorengo programei esker:

• Praktika egokien programa: honen helburua enpresarioen "profesionalizazioa" hobetzea eta helmuga konfiantza sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromisua diploma duten 507 establezimendu daude.

• Q Kalitate Turistikoaren programa: bezeroaren itxaropenak betetzea eta gogobetzea bermatzen dituen programa

• Euskadin 268 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiria.

• Bikaintasun ereduaren programa: erakundeek kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan partehartzen diharduten 14 establezimendu daude Euskadin.

Ezarri Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa bereizgarria zure establezimenduan!
94 607 75 94
www.basquetour.net
info@basquetour.net





ON EGIN

PIKATZEKO

1	URDAIZPIKO IBERIKOA	12 €
1	URDAIZPIKO IBERIKOA ½	6 €
2	IBERIKOEN ARRAZIOA	10 €
3	ZARTAGINEKOEN AUKERA (KROKETAK, RABAK ETA GANBAK)	5 €
4	PATATA MINAK	4 €
5	PATATAK ALI-OLIOAREKIN	4 €
6	PATATA FRIJITUAK	3 €
7	RABAK	6 €
8	KROKETA	1,50 €
9	ENTSALADA ERRUSIARRA	5 €
10	ESPARRAGOAK MAHONESAREKIN	5 €
11	URDAIAZPIKO KROKETAK	5 €
12	LANGOSTINOAK PLANTXAN (5 UNITATE)	8 €

ENTSALADAK

13	MISTOA, LETXUA, TOMATEA, TIPULA, ARRAUTZA GOGORTUA, ATUNA, ESPARRAGOAK, ARTOA Y AZEITUNAK	5 €
14	PASTAZKO ENTSALADA	5 €
15	TOMATE ETA HEGALUZEKO ENTSALADA	5 €
16	BAKAILU ETA ONDDOZKO ENTSALADA EPELA	8 €
17	ENTSALADA EPELA, AHATEZKO ERROTA PIÑOIEKIN KONFITATUA	8 €

USABALGO ERREFERENTZIA

18	ARTEAREN IKATZAREKIN PARRILAN EGINIKO BENTAZKO TXULETOIA, PATATA FRIJITUEKIN (2 PERTS)	32 €
19	BERDIN, BANAKAKOA	16 €

HANBURGESAK

20	USABAL, TXULETOIAREKIN EGINIKO HANBURGESA ERRALDOIA, LETXUA, TOMATEA, TIPULA, GAZTA DOBLEA, MAHONESA ETA PATATA FRIJITUAK	6 €
21	HANBURGESA, LETXUA, TOMATEA, TIPULA, GAZTA, MAHONESA ETA PATATAK	5 €
22	HANBURGESA HIRUGIHARRA, ARRAUTZ FRIJITUA, GAZTA, TIPULA ETA PATATAK	5 €
23	HANBURGESA GAZTAREKIN	3 €
24	KOBEZ EGINIKO HANBURGESA	12 €

PLATER FAMILIARRAK

25	ENTREKOTA PATATA FRIJITU, KROKETAK ETA ERRUSIAR ENTSALADAREKIN	11 €
26	ENTREKOTA PATATA FRIJITUAK ETA KROKETEKIN	9 €
27	ARRAUTZ FRIJITUAK URDAIAZPIKO ETA PATATA FRIJITUEKIN	6 €
28	GAZTEAREN XERRA PATATA FRIJITUEKIN	6 €
29	ESKALOPEA, ARRAUTZA ETA PATATA FRIJITUEKIN	8 €
30	BAKAILU TORTILA, LEGATZ ARRAUTZAZTATUA ETA PATATAS FRIJITUAK	11 €
31	GAZTEAREN SAHZEKIA PATATA FRIJITUEKIN	9 €
32	AHATE KONFITA PATATA FRIJITUEKIN	8 €
33	ENTREKOTA ROKEFORT ERARA, KROKETA ETA PATATA FRIJITUEKIN	8 €
34	OLIASKO HEGALAK PATATA FRIJITUEKIN	6 €
35	TRIPAKIAK SALTSAN	8 €
36	HARAGIZ BETERIKO PIPARRAK	10 €
37	TXIPIROIAK TINTAN	10 €
38	OLARRA LETXUA ETA TIPULAZKO ENTSALADAREKIN	7 €
39	LEGATZA FRIJITUA ERRUSIAR ENTSALADAREKIN	11 €
40	BAKAILUA PIPARRAREKIN	10 €

OGITARTEKOAK

41	URDAIAZPIKO ONDUA GAZTA URTUAREKIN	4 €
42	URDAIAZPIKO EGOSIA GAZTA URTUAREKIN	4 €
43	SOLOMOA, GAZTA URTUA ETA PIPARRAK	4,50 €
44	TORTILA (BAKAILUA, TXORIZOA EDO URDAIAZPIKOA)	4 €
45	URDAIAZPIKO IBERIKOA	5 €
46	URDAIAZPIKO IBERIKOA GAZTA URTUAREKIN	6 €
47	SOLOMOA, HIRUGIHARRA, GAZTA, LETXUA, TOMATEA ETA MAHONESA	6 €
48	HIRUGIHARRA, GAZTA URTUA ETA SALTITXA	5 €
49	GAZTA	4 €
50	BEGETALA, LETXUA, TIPULA, TOMATEA, ATUNA, MAHONESA, ARRAUTZ GOGORTUA	4,50 €
51	OILASKO-BULARKIA, LETXUA ETA MAHONESA	5 €

SANDWICHAK

52	URDAIAZPIKO EGOSIA ETA GASTAZKO MISTOA	4 €
53	URDAIAZPIKO IBERIKOA ETA GASTAZKO MISTOA	5 €
54	BEGETALA, LETXUA, TIPULA, TOMATEA, ATUNA, MAHONESA, ARRAUTZ GOGORTUA	4 €
55	OILASKO-BULARKIA, LETXUA, TIPULA, TOMATEA, MAHONESA	5 €
56	CROQUE-MONSIEUR, URDAIAZPIKO EGOSIA, ARRAUTZA, GAZTA URTUA ETA GRATINATUA	5 €

POSTREAK

57	ETXKO NATILLAK	3 €
58	ETXKO FLANA NATAREKIN	3 €
59	ETXKO ARROZ-ESNEA	3 €
60	TARTA IZOZTUAK AUKERAN	4 €
61	IZOZKIAK AUKERAN	3 €
62	GAZTA	3 €
63	HAURRENTZAKO IZOZKIAK	2 €
64	COULANT	3 €
65	KUKURUTXO IZOZKIA	1 €
66	GAZTA, MENBRILLO ETA INTXAURRAK	4 €
67	OGIA	0,5 €



INFO@TOLOSACHULETA.COM
WWW.TOLOSACHULETA.COM



POLIGONO USABAL, 22
20400 TOLOSA (GIPUZKOA)

ERRESERBAK: 943 674 316

OPARI TXARTELA

POSTRE 1 EDO SAGARDO DASTAKETA 1

PROMOZIO HAU 2012KO AZAROAREN 30AN AMAITZEN DA
OPARI TXARTELA ESKURATU AHAL IZATEKO, BEZEROAK 6€KO GASTUA EGIN BEHARKO DU.
EZIN DA ALDI BEREAN TXARTEL BAT BAINO GEHIAGO ERABILI.
PERTSONA BAKOITZAK, EGUNEAN TXARTEL BAKARRA ERABILI AHAL IZANGO DU, SALGAIAK AMAITUZ GERO,
BEZEROAK ESKURAGARRI DUENAREN ARTEAN AUKERATU BEHARKO DU.
EZ DIRA APURTUTAKO EDO BESTELAKO ALTERAZIORIK JASAN DUTEN TXARTELIK ONARTUKO.

